

Asialdia, Natura eta jarduera fisikoa uztartzen ditu aurtengo udako udal eskaintzak

- Gazteria Lansailak bi ekimen sustatuko ditu aurtun: Alde batetik, 'Leitzarabentura' ekimena, nerabeei zuzenduta, eta, bestetik, 'Goazen jolastera' txikienek gozatzeko udaleku irekia.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lansailak “UDA 2026” egitaraua antolatu du, non “Goizean kirolean” kirol udalekuak eta igeriketa eta teniseko ikastaroak egiteko aukera eskainiko zaien haur nahiz nerabeei.
- Bi lansailen eskaintzek izen-emate epe berdina izango dute: maiatzaren 4tik 22ra bitartekoa.

Udalak prestatu du jada aurtengo uda parterako aisialdi eskaintza, aurreko urteetako proposamenari jarraiki eta adin ezberdinetara zuzendutako “Goazen jolastera”, “Leitzarabentura” eta “Kirol jarduerak” ekimenean banatuta. Aurtun ekintza guztien izenemate epeak hasiera berdina izango du, hau da, maiatzaren 4a, bukaera aldiz hilaren 17an bukatuko da “Kirol jardueren” kasuan, eta 22an Goazen Jolastera eta Leitzarabenturaren kasuan “Leitzarabentura udalekuak”, Leitzarabenturaren Etxean burutuko da eta natura, kirola eta aisialdia uztartzen dituzten jarduerak ezberdinak proposatuko dira bertan. 2010 eta 2015 bitartean jaiotako gazteei zuzenduta dago eta bi txandatan banatuko da: lehena ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartekoa, eta bigarrena, aldiz, uztailaren 13tik 24ra. Astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:00etara. Izen emateak leku kopurua gainditzen baldin badute, plazak zozketa bidez esleituko dira streaming bidez maiatzaren 27an eta behin betiko zerrenda ekainaren 4ean argitaratuko da. Guztira, 9 nerabeez osaturiko 4 talde egingo dira. Izen-emateak online egin beharko dira www.andoain.eus orrialdean.

“Goazen jolastera” ekimenari dagokionez, 2018 eta 2023 bitartean jaiotako haurrei zuzendutako udaleku irekiak dira, eta tailerrak, jolasak, eskulanak, txangoak... konbinatzen ditu. Jarduera hau bi txandatan banatuko da ere (ekainaren 22tik uztailaren 10era eta ekainaren 13tik uztailaren 24ra). Izen ematearen gehienekoa gaindituz gero, zozketa maiatzaren 26an egingo da streaming bidez goizeko 12:00etan. 264 plaza eskaintzen dira, 24 taldetan banatuta. Izen-emateak online egin daitezke www.andoain.eus orrialdean edo bertaratuz Gazte Lokalean: Astelehen eta asteartean 10:30tik 12:30ra eta asteazkenetik ostiralera 17:00etatik-19:00etara.

Bestalde, Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Udal Zerbitzuak “Uda 2026” egitarauaren barruan ondorengo jarduerak eskaintzen ditu:

Haurrentzako eskeintza:

· Igeriketa: adin eta maila ezberdinetako haurrentzako eskeintza izango da: 2019tik Aurrera jaiotakoentzat hastapen mailan, 2020-2022 bitartean jaiotakoentzat hastapena eta ludoteka mailetan eta 2012-2019 bitartean jaiotakoentzat estiloak mailan. Hauetaz gain, igeriketa egokitua ere eskeiniko da. Bi txandetan egin ahal izango dira; 29tik uztailaren 10era, eta uztailaren 13tik 24ra.

· “Goizean kirolean”: 2014 eta 2018 urteen artean jaiotakoentzat. 5 txanda ezberdin egingo dira (ekainak 22-26; ekainak 29-uztailak 3; uztailak 6-10; uztailak 13-17; eta uztailak 20-24).

· Tenisa: 2 aukera ezberdin izango dira. Alde batetik, 2010 eta 2013 bitartean jaiotakoentzat, eta, bestetik, 2014 eta 2018 bitartekoentzat, txanda bakarra egingo da uztailaren 13tik 24ra.

Helduentzako eskeintza:

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitarte martxan egongo dira Allurralde kiroldegian K-Stretch, Aquagym, Pilates, Zunbat-Fit, Spining, Kross Training, Pump eta Gap-eko taldeak, eta Arraten Soinketa eta Pilates +65ko taldeak.

Igeriketako eskeintza bi txandetan izango da, ekainaren 29tik uztailaren 10era eta uztailaren 13tik 24ra hasiera eta hobekuntza mailetan.

Zozketa, maiatzaren 22an egingo da, eta lekuak eta ordainketak berrestea, maiatzaren 25etik ekainaren 7ra bitartean. Leku libreetan izena emateko epea ekainaren 10etik aurrera hasiko da. Izen-emateak online egin daitezke, kirola.andoain.eus orrialdean edo bertaratuz Allurralde kiroldegiko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:30etatik 13:00etara eta astelehen, astearte eta ostegunetan 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehigarria eskuragarri www.andoain.eus orrialdean.

Andoain, 2026ko apirilak 16